II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen Zerga-Ordenantza» Lehenengo Xedapen Iragankorra gehitzearen aldaketaren hasierako onespenaren iragarkia.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak, 2026ko azaroaren 4an egindako bileran, hasieran onetsi du «Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren aldaketa, Lehenengo Xedapen Iragankorra gehituz. Espedientea jendaurrean jarri da, iragarki hori argitaratuz. Horrela, hogeita hamar (30) eguneko epean, iragarkia argitaratu den egunetik aurrera zenbatuta, interesdunek nahi dituzten erreklamazioak, zioen agerpenak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean azaltzeko epea amaitu ondoren, Kontseilu Nagusiak bidezko behin betiko akordioak hartuko ditu, aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunak ebatziz. Bat ere aurkeztuko ez balitz, ordura arte behin behinekoa izandako akordioa, behin betiko onartutzat hartuko da.

Nolanahi ere, aurreko atalean adierazitako behin betiko akordioa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Ordenantzaren aldaketaren testu osoarekin batera.

Bilbon, 2026ko azaroaren 4an.—Zuzendari Nagusia, Gregorio Sarasola González

eek: BAO-2026a214-(II-5910)